

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Marie Jean Maitia

*Ezterenzubi,
Nafarroa
Beherea (1931)*

Aurkibidea



Biografia



Ehulenia baserrian jaioa (ama bertakoa zuen eta aita ere auzokoa). 17 senidetan laugarrena, 12 urte zituela haurzain joan zen beste baserri batera eta 14rekin Ezterenzubiko jatetxe batean garbitzen eta zerbitzatzen egon zen. 18 urterekin Bordelera joan zen, gaztelu batera lanera, sukaldeko laguntzaile moduan. Hantxe ikasi zuen frantsesa. 24 urterekin Ameriketara joan zen, Gardnervillera (Nevada), Pyrenees Basque Hotelera lanera, sukaldari. Ordurako anaia bat zuen Ameriketara (Chinon); senide gehiago ere joan ziren gero, Californiara. Hotelean lanean zegoela, senarra izanngo zuena ezagutu zuen, kamioilaria. Salt Lake Cityn hazia zen hura eta ezkondu eta hara joan ziren bizitzera. Seme bat eta alaba bat izan zituzten. 1976an senarra hil zitzaion eta lanean hasi zen berriro: etxeak garbitzen, zaharrak zaintzen... Jean semea ere elkarrizketatu genuen.

Zintak

EZB-004

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-09-20
- **Iraupena:** 53 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com